

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK 2015 BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENA

2015eko urtarrilaren 15ean argitaratu zuen Donostiako Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteei laguntza emateko 2015 urteko diru laguntzen deialdia. Deialdi horretan jasotzen dira Euskara Zerbitzuak Donostiako Euskararen Plan Orokorra (2011-2015) garatzeko edota osatzeko 2015. urtean jarduerak eta egitasmoak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak emateko oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorretako 9. artikuluan zehaztutakoarekin bat, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, organo instrukzio egileari behin-behineko ebazpen proposamena egitea dagokio.

2015. urteko deialdian bi atal berezitu dira: bata, auzoetako plan integralak, 25.000 euroekin hornitua, eta bestea, Irabazi asmorik gabeko elkarteentzako diru laguntzak 12.525,35 euroekin hornitua.

Kasu honetan, aurretik auzoetako plan integralak baloratu zirenez, jarduera zehatzak soilik baloratu dira. Aurkeztutako eskaeren balorazioa egiterakoan, oinarri espezifikoetako 8. artikuluan ezarritako balorazio irizpideak hartu dira kontuan eta irizpide bakoitzerako zehaztutako puntuazioaren arabera baloratu dira. Gutxieneko puntuaziotik (20 puntu) gora lortu duten egitasmoak, beti ere jasotako puntuazioaren arabera, gehienez ere ehuneko jakin batean diruz lagundu dira: 20-40 puntu bitartean jaso duten egitasmoei gehienez aurrekontu defizitaren %40eko diru laguntza esleitu zaie; 41-60 puntu bitartekoei gehienez defizitaren %60koa; 61-80 puntu bitartekoei gehienez defizitaren %80koa; eta, 81-100 puntu bitartekoei gehienez defizitaren %100koa.

Guztira, jarduera zehatzen atalean 21 eskaera jaso dira. Horietatik guztira 11 eskaera izan dira deialdi honetako oinarrietan zehaztutakoarekin bat ez datozenak eta diru laguntza ukatu egin zaie. Onartutako eskaerak kontuan hartuta, ordaindu beharreko kopurua guztira eta goiko paragrafoan aipatutako portzentajea aplikatu ondoren, guztira 24.733,40 euro izango lirateke. Oinarrietan 12.525,35 euroko aurrekontua jasotzen denez, proportzionalki jaitsi da diru laguntza proiektu bakoitzarentzat.

Horiek horrela, oinarri orokorretako 9. artikuluen 3. puntuaren arabera, Balorazio batzordeak egindako txostenaren eta elkarteen espedienteen argitan, diru laguntza eskatu duten elkarteentzako emakiden ondorengo behin-behineko ebazpen proposamena egiten da.

BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Ondoren zerrendatzen diren elkarte eta entitateei diru kopuru hauek ematea:

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 - Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net - www.donostia.org
20003 Donostia

IFK	Elkartea	Proiektua	Lortu-tako Puntuak	Behin-behineko diru laguntza
G7500 1263	106.8FM TTAN TTAKUN EUSKARA ELKARTEA	Ttan ttakun irratia	66	3.423,36 €
G2051 1911	ANTXETA TTANTTAKUN AISIALDI ELKARTEA	Euskara sustatzeko urteko plana	66	1.539,50 €
G2057 8126	ARRANO ELKARTEA	Auzoan euskara suspertzea	36	310,33 €
F2006 8151	EZIKO	2015 udalekuak	39	316,51 €
G2046 1190	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	Donostiako bertso eskola	35	730,25 €
G0136 3027	SEXUNE	Haur sexualitatea eta tratu oneko harremanak	33	644,16 €
G7510 5536	SUSTATU KOMUNIKAZIOA DONOSTIA	Piztu.info	63	709,79 €
G2062 3047	TXIRAIN ELKARTEA	2105eko kultur ekintzak	44	334,23 €
G2053 9185	TALLER DE ARTES ESCÉNICAS DE DONOSTIA-AET	Formación integral de actores y actrices	23	263,34 €
G2073 6377	ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA	Zurriola antzerki eskolaren urteko programa	52	3.038,49 €
G2086 9772	GKE PAUSUMEDIA	UHINAK KOLOREETAN: zubiak eraikiz	39	810,26 €
G2086 9772	GKE PAUSUMEDIA	EUSKALAKARI DONOSTIA	28	405,13 €
	GUZTIRA			12.525,35 €

2.- Ondoren zerrendatzen diren elkarten eskariak baztertzea, zehazten diren arrazoiengatik:

TOPATU KULTURA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEA
Gazte sorkuntza lehiaketa. Bistaratu mikromatxismoa

Arrazoa: Udaleko beste sail batzuei dagokie.

EKONOMISTEN EUSKAL ELKARGOA
Ekonomistak ere euskaraz.

Arrazoa: egitasmoa elkargoko bazkideentzat soilik dago bideratua. (oinarri berezietako 10. artikulua)

ERETI GURASO ELKARTEA
Euskararen bultzada eta zabaltzea

Euskara Zerbitzua

Konstituzio plaza 2 - Tel. 943483750 – Faxa 943483765 - udala_euskara@donostia.org - www.euskaraz.net – www.donostia.org
20003 Donostia

Arrazoia: Zuhaizti ikastetxe barruko egitasmoa da. (oinarri berezietako 10. artikulua)

SIBILIA LAUAIZETAKO GURASO ELKARTEA
Bertsolariak, ipuin kontalariak, musika euskaraz

Arrazoia: Lauaizeta ikastetxe barruko egitasmoa da. (oinarri berezietako 10. artikulua)

ASOCIACION DEPORTIVA Y CULTURAL TXIMELETA
Euskariketan.

Arrazoia: Euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.

ULIALDE KULTUR ETA GASTRONOMIA ELKARTEA
Mintza praktika

Arrazoia: euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen. Aurkeztutako gastua ez dago justifikatua ekimenerako.

ASOCIACION DE MUJERES LAGUNAK DE INTXAURRONDO

Arrazoia: euskara ikastaroak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.

SEXUNE
Sexu heziketa eta aholkularitza sexologikoa

Arrazoia: itzulpenak eta sorkuntza; eta web orrialdeak ez dira deialdi honetan diruz laguntzen.

3.- Interesatuei jakinarazpena egitea eta Udaletxeko oholetan eta Interneten argitaratzen denetik alegazioak egiteko 10 eguneko epea ematea.

Donostian, 2015eko maiatzaren 13an

ORGANO INSTRUKZIO-EGILEA
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua
Mikel Zumarraga Luzuriaga

